



4.2. DIRULAGUNTZA LERROA: SALTOKI ETA ENPRESEN ERROTULAZIOA ETA WEB ORRIAK – 2021 OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1. Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, saltoki eta enpresen errotulazioa, eta bestelako soporte gaineko idatziak (txantilloiak, informazio orriak...), web orriak eta teknologia berriekin zerikusia duten jarduetarako. Lehiarik gabeko edo elkarren segidako konkurrentziaren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu-partida agortu arte) esleituko dira.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko kopurua

Saltoki eta enpresen errotulazioa, web orriak eta teknologia berriekin zerikusia duten jarduetarako emango diren dirulaguntzen zenbatekoa 2021eko aurrekontuko partidaren kontura izango da; betiere, partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada. Partida hori ondorengoa da:

1030.471.01.335.10 – Dirulaguntzak: lan munduari; errotulaziorako eta web orrietarako 1.000 €.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

2021eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

Oro har, dirulaguntzaren kopuru osoa inoiz ez da izango onuradunak bideratu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen dirulaguntzak edo laguntzak batuta.

Dirulaguntza eskariei, horretarako jarrita dagoen kopurua gainditzen dutenean, hainbanaketa egingo da, eskatzaileek egin duten gastuaren araberrako proportzioak mantenduz

3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeke era

Oro har, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte –Erreterian errotutako edozein pertsona fisiko edo erakunde juridiko pribatuek.

3.1.- Enpresa eta saltokietako errotulazioari eta bestelako soporte gaineko idatziak (txantilloiak, informazio orriak...) dagokionean, honako baldintzak bete beharko dira:

a) Zuzen idatzita egotea.

b) Dirulaguntza jaso ahal izateko, nahikoa izango da honako baldintzetako bat betetzea:

- Jarduera euskaraz jartzea, nahiz eta saltoki edo enpresaren izena gaztelaniaz egon.

- Jarduera idatzita ez agertzea baina establezimenduaren izena euskaraz egotea.



- Errotuluan izena, abizena edo izen-abizena besterik agertzen ez badira, ez da dirulaguntzarik emango.

3.2.- Web orriak sortu eta teknologia berriei dagokienean, honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Orriaren eduki guztiak euskaraz egotea. Horretaz gain, orria beste hizkuntza batean ere egon daiteke Orriaren eduki guztietan, hitzezkoetan zein irudi bidezkotan, euskarazkoetan zein gaztelaniazkoetan, hizkuntzaren erabilera bateratzailea egitea, hizkera sexista baztertuz
- b) Ezinbestekoa da testua zuzena eta kalitatezkoa izatea
- c) Edukien artean legeak babestutakorik agertzen bada, eskatzaileak dagokion baimena edukitzea
- d) Web orria erabat osatuta egotea eskaria egiten den unean

3.3.- Eskaearekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek Udalak emandako inprimaki normalizatua (Eranskin honetan agertzen dena) aurkeztu beharko dute, ondorengo dokumentuekin batera:

- a) NAN edo IFK
- b) Eskaria egiten duen erakundeak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztageria.
- c) Faktura.
- d) Errotuluan edo web orrian azaltzen den testua.
- e) Errotuloaren argazkia establezimenduan.

4.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskaearak egiteko epea 2021eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra izango da, biak barne.

5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.

5.1.- Establezimendu komertzialen errotulaziorako eta bestelako soporte gaineko idatziak (txantilloiak, informazio orriak...), eta web orrientzako, gehienezko dirukopuruak hauek izango dira:

Establezimenduaren errotulua/web euskaraz badago, kostuaren %50, gehienez ere 500,00 euro.

Establezimenduaren errotulua/web ele-bietara badago, %25, gehienez ere 250,00 euro.

Ez da diruz lagunduko web orriaren mantenu lanik.

5.2. Diruz lagunduko dira herritarrei zerbitzua euskaraz ematearren egiten diren inbertsioak, bai



informatika mailan baita aplikazio eta teknologi berrietan ere. dirulaguntza kostuaren %50 izango da, 500,00 euro gehienez ere.

Dirulaguntza eskariek, horretarako jarrita dagoen kopurua gainditzen dutenean, hainbanaketa egingo da, eskatzaileek egin duten gastuaren arabera proportzioak manteduz.

6.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena hartu ondoren egingo da. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatu ondoren egingo da aldi bakar batean, eskaeran adierazitako kontuan egingo den dirusarrera bidez.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRETERIAKO UDALAK 2021 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.